

KULTURA

gogoan

BITORIANO GANDIAGA

(Poeta)

Lurraren poeta

Jon Eskisabel

POETA HIL ARTE

Minbiziak epaia emana
zuela jakin arren,
idazteari lotu zitzaion
azkenera arte

PERTSONA APARTA

Apala zen, naturaren
mireslea, gizakiaren
arazoekin arduratsua eta
euskararekin leiala

OBRA POETIKOA

Gerra aurreko
poesiagintza eta gaur
egungoa batzen dituen
obra utzi du Gandiagak

EUSKARA


Hizkuntzaren erabilera,
dotorea baina naturala,
inor gutxik eraman duen
kalitate mailara igo zuen

(Elorri, 1962), Euskal Herriaren eta euskal gizartearen samina garai politiko latzetan (*Hiru gizon bakarka*, 1974), gizakiaren txikitasuna eta hiriaren deshumanizazioa (*Uda batez Madrilén*, 1977) eta gizakiaren oinazea (*Denbora galdu alde*, 1985) azaldu zituen aldi berean bere burua eta izaera islatzen zuten poemetan.

Hitzaren maisua

Hizkuntzaren erabilera —dotorea baina naturala, sinplea baina sakona— inor gutxik eraman duen mailara eraman zuen Gandiagak. Haren hitzen erritmo sentikorra eta emozio jarioa baliatu dute hainbat musikaririk kantu bihurtzeko. Hitzaren maisua zen azken finean Gandiaga, hitz bakar batekin gauza ugari esateko gaitasun ikaragarria zuena.

Gandiagaren heriotzaz geroztik, umezurtzago dago euskal literatura.



EGUNKARIA



2001 HIZKUNTZEN URTE EUROPARRA

ESANAK ESAN, EUSKARA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SALA
Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Heriotzarekin biok besoz
beso / heriotzarekin na-
bil egunero / elkarrekin
etsi genuenez gero idatzi zuen Bi-
toriano Gandiagak argitaratu
gabe utzi dituen azken poeme-
tako batean. Bizitzarekin beza-
la, heriotzarekin erabat lotuta
zegoen poeta frantziskotarra.
Bizitzeko grinak eta fedearen
segurtasunak lagundu zion he-
riotzaren gertutasunerako ho-
beto moldatzen. Horrela, min-
biziak eragindako gaitzak epaia
emana zuela jakin zuenean, ez
zuen bizipoza erabat galdu, eta
idazteari lotu zitzaion azkenera
arte. Liturgiarako gorazarreak
gazelaniara aldatzen ari zen az-
ken aldian, eta Arantzazuren
mendeurrenerako liburuan zer
idatziko zuen jada erabakita
zuen. Gauzatu gabe geratu zen
azken asmo hori. Otsailaren
21ean zendu zen Bitoriano
Gandiaga, 1940tik bizileku eta
bere obra poetikoaren inspira-
zio sorlekū nagusi izan zuen
Arantzazuko santutegian.

Gandiagaren heriotzak atse-
kabe handia sortu zuen frantzis-
kotar komunitatean zein oro har
euskaltzale eta kulturgileen ar-
tean, Arantzazun egin zitzaion
azken agur jendetsuak erakutsi
zuenez. «Euskal poetak izan
daitezke onak, oso onak edo
Gandiaga», esan zuen behin
Juan Mari Lekuonak. Ez dago
baieztapen hori ezbaian jarriko
duenik, aparteko pertsona bai-
tzen Mendatan 1928an sortuta-
ko idazlea. Apala, gauza txikien
eta gertuko maitalea, senti-
beratasun berezi eta gizatasun
handikoa, natura eta lurraren
mireslea —«hemen bizi den
hondarra maite dut, arbolén ize-
nak, iturrien izenak, harrien ize-
nak...», esaten zuen—, gizakia-
ren eta gizartearen arazoekin
arduratsua, euskararekin eta fe-
dearekin leiala... Adar askoko
arbola zen Gandiaga, berari esa-
tea gustatzen zitzaion bezala.

Poeta gisa, XX. mendeko
euskal poesiagintzaren errefe-
rentzia nagusietako bat da. Ge-
rra aurreko poesiagintzaren eta
gaur egungoaren arteko zubia
eraiki zuen bere sei poema libu-
ruetan. Arantzazuko paisaiak
eta izadiaren gorazarre lirikoa